



2015EKO OTSAILAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren hogeita seian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Ur-tzi Iruin Arruti, Inazio Estensoro Eskisabel, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Kepa Goenaga Alikostes, Patxi Albisu Estensoro eta Milagros Madrazo Rada zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2015eko otsailaren 5ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratu da.

III.- ELOSEGI 30EKO UDAL JABETZA BESTERENTZA.-

Lazkaoko Udala Elosegi 30eko 2. solairuan kokatzen den 8,20 m²ko lokal baten jabea da.

Lokal honek udalarentzat inolako erabilgarritasunik ez duela, besterentzea planteatzen da eta honetarako prozedura ireki bidez besterentzeko espedientea prestatu da.

Lokalaren balioa, espedientean dagoen txosten teknikoak dioenez, 8.708,40 € da.

Espedientea ikusi ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordeak besterentzeko espedientea onartu eta lehiaketa ireki bidez besterentzeko lizitaziorako deialdia



egiteko egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabaki du:

- 1.- Elozegi 30eko 2. solairuan udalaren jabetzako lokala besterentzeko jardunbide ireki bi-dezko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea.
- 2.- Besterentzearen esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

IV.- ALDATXERAKO BIDE BERRIA EGITEKO LURRA ESKURATZEKO TRUKAKETA.-

ALDATXE ETXERA BIDEA lanak gauzatzeko, Udalarena den eta Aldatxe etxearen inguruetan kokatua dagoen ondasun higiezina, JOSE MARIA MAIZ GALPARSORO Jn.rena den eta gune berean kokaturik dagoen ondasunarekin trukatzeko besterentzeko ireki den espedientea aztertu da.

Idazkaritzak Txostena igorri du, aplikatu beharreko legeriaren eta jarraitu beharreko jardunbidearen inguruan; baita Udal Teknikariak berea igorri ere, bai partikularraren bai Udaleko higiezinaren balioespen teknikoari buruzkoa. Azken horrek adierazten du, bi ondasunen balioen arteko aldea % 0koa dela. Beraz, baliorik altuena duen ondasunaren %40a baino txikiagoa da.

Konstarazten da trukatzeko planteatzen den bi lursailak metro berak dituztela eta bi ondasunen balioen artean alderik ez dagoela eta beraz ez dela aurrekontuan inolako kon-signaziorik behar.

JOSE MARIA MAIZ GALPARSORO Jn.k, trukatu nahi den ondasunaren jabeak, berriazko onarpena gauzatu du, bai bere ondasunaren balioztatzearren inguruan, bai trukatzearren beraren inguruan.

Aurreko guztia kontuan izanda, Udalbatzak, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Informazio Batzordearen proposamenez, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakia hartzen du,

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Udalarena den eta Aldatxe etxearen inguruetan kokatua dagoen ondasun higiezina, JOSE MARIA MAIZ GALPARSORO Jn.rena den eta gune berean kokaturik dagoen ondasunarekin trukatzeko espedientea onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta kasuan kasuko eskritura publikoa gauzatzeko agertu dadila eskatzea. Alkatetzak, eskritura eta erabakitakoa betearazteko nahitaezko diren bestelako agiriak izenpetzeko gaitasuna izango du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita hiru gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

